

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE GUZTIOK ELKARTEA

Guztiok Elkarteak badu "Hermanos txikis" izeneko programa bat. Behar bereziak dituen haurren inguruan izaten diren anai-arrebei laguntzea du helburu programak, denok baikara beharrak ditugun pertsona bereziak.



Lagunok, gaur nire
bi lagun etorri dira bisitan,
Patakon eta Ane Pirata.

Ederra kuadrilla
elkartu zaretena!



Ez nuke nahi
Patakon hemen
egotea.

Zergatik?

?!

Hanka bakarra du,
behar bereziak ditu. Ez nuke nahi
berak entzutea nik kontatzen
ditudanak... akaso ez da
ondo sentituko.



Ondo da. Patakon joan da.
Honek lasai hitz egiteko
tokia izan behar du.

Nire anaia gurpil aukian dago.
Batzuetan asko maite dut, baina beste
batzuetan ez. Ez nuen nahi hori esan
Patakonen aurrean.



Nire arrebak ere
behar bereziak ditu.
Batzuetan amorratu egiten naiz
bere erruz ezin ditugulako
plan asko egin.

Ni etxean ez naiz inoiz
kexatzen. Nire gurasoek lan handia
daukate nire anaiarekin, eta ni ahal
dela lasai egoten naiz.
Baina batzuetan triste
sentitzen naiz.



Nik behin amets egin nuen
anaia eta biok hondartzan ginela
jolasean. Eta anaia ez zegoen
gurpil aulkian.

Nik nire arrebarekin
futbolean jolasten dut.
Bera atezaina izaten da beti.
Barre asko egiten dugu.



Niri batzuetan iruditzen zaít
Patakon bere hanka bakarraz baliatu egiten dela.
Adibidez, etxean ez du inoiz erratza pasatzen.
Haserretu egiten naíz. Eta, gero, gaizki sentitzen
naíz haserretzeagatik, nik bi
hankak ditudalako.





Zuen anai-arrebek behar bereziak dituzte eta zuek oso garrantzitsuak zarete haientzat. Baina eskubidea daukazue tarteka haserretzeko, nekatuta egoteko, triste sentitzeko... Horregatik ez zarete gaiztoak.



Ze ondo sentitzen naizen, Isabel! Bizkarretik motxila astun bat kendu banu bezala sentitzen naiz.

Hori da helburua, motxila astunak kentzea.

GUZTIOK ELKARTEA

Guztiok Bortzirietako haur eta familien elkar-
tea da. Dibertsitate funtzionala duten haurren
famiak elkartzen dira bertan, hamazazpi
inguru, eta lagungarri zaizkien terapiak etxetik
gertu lortzea da helburu nagusia.



Sortuz geroztik, zenbait zerbitzu Bortzirietan
eskaintzea lortu dute; fisioterapia, hidrotera-
pia, psikologia zerbitzua, txakurren laguntza-
rekin terapia eta anai-arrebentzako laguntza
zerbitzua, adibidez.



Dibertsitate funtzionala jendartearen erdigu-
nean jartzea ere bada elkarrearen helburua.
Normaltasunez eta naturaltasunez zabaltzea
guztiok ditugula trebetasun bereziak eta
behar bereziak. Jendarte inklusiboago bat
eraikitzea, alegia.

Harremanetarako:
guztiokbortziriak@gmail.com